



# Inertziari uko egin, beste Bilbo bat eskaini

✂ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📍 EIDER ITURRIAGA

**B**ilbo kolonizatuta dago. Gaboneta-ko argiek itxura are distopikoagoa ematen diote hiriko erdigunean batu den jende uholdeari. Alde Zaharretik eta Areatzatik oinez ibiltzea itogarria da, inertziak ez bada. Babeslekuren bat egon behar da. Kolonizatutako hiri honetan periferiara joan beharra dago arnaguneak aurkitzera. San Frantzisko kalean, periferia den erdigunean, jai giroa da. Jaioterria urrun duten bilbotar ugari beraien herrialdearen futbol taldearen garaipena ospatzen ari dira. Aukera polita den arren, auzokoak ez diren eta inork gonbidatu ez dituen morroien mehatxuzko presentzia ez da batere erakargarria. Larraskituraino joatea erabaki dut, han, eraikin industrial baten babesean antolatatu diren zuzeneko emanaldiekin gozatzeko asmoz.

Orain dela gutxi ireki zituen atea Donations Project egitasmoaren lokal berriak, eta larunbat hotz honetarako

ekitaldi hirukoitza prestatu dute. Gaua irekitzearen ardura Radithor-ena izan da. A zer zaplastekoa eman digun oraindik berotzen ari ginela. Ikusi diodan emanaldirik onena eskaini du sinterekin eta horman proiektatzen ziren irudiekin jolastuz. Bilboko estratuetan arakatu du eta aurkitutako mamuak ekarri ditu gurera. Gure iragan hurbileko giro industrial gorpuztu du eta hiri hau are grisagoa zeneko paisaia sonikoak sortu ditu. Bazueta grabeei nagusitasuna eman die, besteetan belarriak urratu eta tinpanoa zulatzen zuten soinu karrankariei. Ibaian metatuta dauden metal astunekin jolastu eta bonbak bezala erortzen ziren eztan-dekin jarraitu du. Gorenera heldu denean kolpez bukatu eta isiltasuna nagusitu da segundu bakar batez, jendea txaloka eta oihuka hasi den arte.

Hamabost minutu eskas izan ditugu arnasa hartzeko, Comando Psicográfico bikotearen emanaldia hasi baino lehen.

## DONATIONS PROJECT

**NOIZ:** abenduak 10

**NON:** Larraskitu (Bilbo)

Pablo Gallo eta Iago Alvite bikotearen egitasmoa berezia da, oso. Bigarrenak sinterekin inprobistazen duen bitartean, lehenengoak itsuan marraztu eta sortutako irudiak horman handituta proiektatzen dira. Errealitatea ez dago gure alde, ohar hori bota du Gallok marrazten hasi baino lehen. Orri zurietan agertzen ziren deabruak eta forma bereziak beste mundu batetik ekarriak ziruditen. Pozoi digitala edertasun erradikala bihurtzeko gai da bikotea.

Bukatzeko Fernando Carvalho-k musika elektronikoaren historian zehar eraman gaitu: Detroiteko techno-house soinuetaatik hasita Europako hard-trance eremuetaraino. Itsasontzi batean noraezean egotearen sentsazio izan da: dibertigarria bezain arriskutsua. Izugarria izan da Larraskituko gela ilun honetatik mugitu gabe dantzarako musikaren kartografian zehar bidaiatzea, inoiz bukatzea nahi ez duzun bidai horietako bat. ●